

OÑATIKO UDALA	
Irregistro Data	
2011 IKA 26	
SAT. ERK.	IKTIBERA
2060	

KUKUTZA GAZTETXEAREKIKO ELKARTASUNA

Oñatiko UDALAK bere elkartasuna helarazi nahi dio momentu hauetan Kukutza Gaztetxeari eta bertan lanean jarduten zuten gazte guztiei. Azken 13 urtetan Errekalde auzoarentzat eginiko lanak ez du preziorik, egondako alternatibek zementua baino askoz gehiago balio dute. Era berean gure elkartasuna luzatu nahi diogu atxilotuta, kolpatuta edo jazarrita sentitu diren guztiei.

Bestetik Errekalden ikusitako irudiak eta bizitako momentuak gogor salatu nahi ditugu. Bertan Ertzaintzak erabilitako jarrera ezin da justifikatu inongo egoeran. Erresistentzia pazifikoa egiten ari zen jendearen aurka oldartu dira, ohikoak diren gomazko pilotak eta borrez gain gerra materiala erabilia. Zertara dator demolizio kargak erabiltzea oraindik jendea barruan duen eraikin batean? Nola da posible tanketekin pareta bat botatzea atzean norbait dagoen konprobatu gabe? Nola da posible zahar, gazte eta bizilagunen aurka kargatzea inongo lotsarik gabe? Ertzaintzaren jarrera tamalgarria baino probokazio hutsa izan zen, hamarnaka zauritu eta atxilotu eraginez eta gerra bateko irudiak eskainiz.

Bilboko Kukutzan ikusitakoak ez zaizkigu gertaera arrotzak suertatu oñatiarrei. Oñatiko Gaztetxeak ere makina bat eraso, itxiera eta jazarpen jasoak ditu. Batean zein bestean erantzule garbiak daude eta argi dute zeintzuk diren euren interesak: adreilua eta negozioa ametsak eta auzolanaren gainetik. Nahiago dute espekulatzailen Euskadi bat kultur sortzailen Euskal Herri bat baino. Hartu duten erabakiak argi uzten du zein den euren erronka: kontrolpean ez duten guztia biolentziaren bidez suntsitzea.

Kukutzak azken 13 urtetan erakutsitako jarrera eta Euskal Herrian luze zabalean dauden beste gaztetxe, gazte asanblada, kultur eragile eta abarren ekinbidea erraldoia da, oñatiarrena barne. Euren makroproiektu eta inora ez doazen proiektu kulturalen aurrean herri hau bizirik dago, eta bizitza auzoan dago, taupadaz taupada, koloreztatzen euren zuri-beltza.

Hau guztia kontutan izanda, udal honek ondorengo puntuekin bat egiten du:

1. Kukutza Gaztetxeko lagunei Oñatiko udalbatzaren sostengu eta elkartasun adierazpena egitea.
2. Kukutza gaztetxearen hustean Ertzaintzak izan duen jokaera larri eta gehiegizkoaren aurrean, eta honen ondorioz bertan izan diren dozenaka zauritu eta 30 baino gehiago atxiloteten aurrean, Udal talde honek poliziaren jokaera bortitza eta inolako logikarik gabekoa salatzen du.

